



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/14

Aldundiak Turismoaren arloko 2018-2025 Plan Estrategikoa aurkeztu dau Batzar Nagusien aurrean

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Diputatuak, Bilbora eta Bizkaira datorren turismoa bultzatzeko egin dan 2018-2025 plan estrategikoa aurkeztu dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon batzordearen aurrean. Dokumentuak, lekutze helburuen, bisitariaren araberako lehenasunezko produktuen edo dagozan merkau potentzialen segmentazioaren gaineko atalak jasoten ditu, beste alderdi batzuen artean. Pradales Talde Mistoak eskatuta etorri da. Talde horrek, sektorearen estratigiaren eta azken urteari jagokon turismoaren balantzearen gaineko informazioa eskatu dau.

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Sailaren arduradunak zehaztu dauenez, Bizkaiko turismoaren estrategia “sektoreko eragile guztien eskutik” prestau da, eta 2018-2025 epealdirako helburuen dekalogoaz azaldu dau. Dekalogo horretako puntuen artean honeek azpimarratu behar dira: turista bakotxaren egotaldiaren batez besteko gastua eta errepikatze tasea handitzea; dibertsifikazio geografikoa eta Europako merkauan lortu beharreko hazkundera; digitalizazioaren aldeko apustua; edo landa guneetako turismoaren promozioa, beste batzuen artean.

Pradalesek, 950 erreferentzia jasoten dituen 30 produktutan banatu dau Bizkaiaren turismo arloko eskintzea, eta horreetatik 12 lehenasunezko hartu ditu. Plan estrategikoan ikusten danez, gastronomia, euskal nortasuna eta erosketak, turistek gehien atsegin dituen artean eten barik agertzen diran elementuak dira. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, sektoreak lau merkau motari zuzendutako ekintzak uztartu beharko ditu: gertutasuneko turismoaren zifrei eustea; irisgarritasunean gora egitea (aireportuagaz loturak hobetuz); errentagarritasun handiagora irekitzea, egotaldi luzeagoen bitartez; eta merkau barrien prospekzioatik sortutako aukeretan zentratzea.

Sektorearen 2017ko zifra handiak azaltzeaz gain (Bizkaiko BPGren %5,2 eragin dau, 43.000 lanpostu gehitu ditu eta 1.800 milioi euroko eragina sortu dau), Imanol Pradalesek nazinoarteko turismoaren arloan izandako %12,7ko hazkundera azpimarratu dau, eta baita lurraldeak eta bertako jendeak bisitetan gaituen pertsonen aldetik lortu daben balorazino altua be. Eta 2018a izango dan “ekitaldi handiko urteari” begirako hiru helburu nagusiak aitatu ditu: urtarokotasuna hobetzea, lurraldearen posizionamendu hobea lortzea eta Turismoak dakarren balio erantsia Bizkaiko herritarrei modu egokian helduarazotea.

2017ko datuen balantzea eta hurrengo urteetarako turismo arloko estrategia pozik hartu ditue Batzarretako talde gehienek, baina Podemos Bizkaiako eta EH Bilduko bozeroaleek, hiru helburu izango dituen neurriak hartu beharra azpimarratu dabe: sektorean sortzen dan enpleguaren kalidadea bermatzea; turismoko pisuen iruzurrezko eskintzea saihestea; eta leku jakin batzuetan larregizko saturaziorik ez gertetea eta turismoagaz erlazioautako jarduera guztiak ingurumenaren aldetik jasagarriak dirala bermatzea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

UHOLDEAK ASUA ETA ITSASADARRAREN ARTEKO ERREPIDEAN

Beste alde batetik, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek egin dituen ahozko erantzun-eske biri erantzun deutsee saio berean. Lehenengo kasuan, Endika Montes batzordekideak, Asua errekaen ondoan, Makro merkataritza gunearen parean, BI-735 errepideko 10,9 kilometroan izandako uholde ugarien inguruan galdetu dau. Pradalesek azaldu dauenez, 500 metroko tartean errepidearen sestra igotzeko obrea aurreproiektu fasean dago, 725.000 euroko aurreikusitako kostuagaz. Dana dala, une honetan Erandioko Udala espedientea aztertzen dabil.

Podemos taldearen itauna, Batzarretako talde horrek, herri horretako ekonomia eta uri arloko garapena bultzatzeko sortu dan Sestao Bai soziedadearen gainean behin eta barriro egin dauen dokumentazino kontsulta eskariaren gaineko informazino faltaren ingurukoa izan da. Imanol Pradalesek zehaztu dauenez, informazinoa soziedadeari berari eskatu behar jako, eta ez Aldundiari, baina Sestao Bairen kontu guztiak Kontuen Epaitegiak auditau dituala eta erakunde horrek ez dauela ezelango salbuespenik agertu gehitu dau.

NOTA DE PRENSA

14/02/18

La Diputación presenta a las Juntas Generales de Bizkaia el Plan Estratégico 2018-2025 para el sector del Turismo

Imanol Pradales, Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, ha presentado esta mañana ante la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia el plan estratégico 2018-2025 para el impulso del Turismo en Bilbao y Bizkaia. Dicho documento contiene apartados dedicados a los objetivos de posicionamiento, los productos prioritarios en función del visitante o la segmentación de los diversos mercados geográficos potenciales, entre otros aspectos. Pradales ha comparecido a solicitud del Grupo Mixto, que había solicitado información sobre la estrategia del sector y sobre el balance turístico correspondiente al último año.

El responsable del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial ha precisado que la estrategia turística de Bizkaia se ha elaborado “de la mano de todos los agentes del sector”, y ha expuesto un decálogo de objetivos para el periodo 2018-2025 entre los que destacan: el incremento de la estancia del gasto medio por turista y de la tasa de repetición; la diversificación geográfica y el crecimiento concreto en el mercado europeo; la apuesta por la digitalización; o la promoción del turismo rural, entre otros propósitos.

Pradales ha segmentado la oferta turística de Bizkaia en 30 productos que incluyen 950 referencias, y de ellos 12 marcados como prioritarios. La gastronomía, la identidad vasca y las compras creativas son, según el plan estratégico, elementos siempre presentes entre las preferencias de los turistas. Según el responsable foral, el sector deberá combinar acciones dirigidas a cuatro tipos de mercados: mantener las cifras en turismo de proximidad; crecer en el de accesibilidad (conectado a través del aeropuerto); abrirse al de rentabilidad, a través de estancias más prolongadas; y focalizarse en oportunidades derivadas de la prospección de nuevos mercados.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Además de exponer las grandes cifras del sector en 2017 (que ha generado un 5,2% del PIB de Bizkaia, ha sumado 43.000 puestos de trabajo y ha generado un impacto de 1.800 millones de euros), Imanol Pradales ha subrayado el crecimiento del 12,7% en el segmento del turismo internacional, así como la alta valoración del territorio y de sus gentes por parte de las personas que nos visitan. Y ha señalado los tres grandes objetivos de cara al “año de grandes eventos” que va a constituir 2018: una mejora de la estacionalidad, un mejor posicionamiento del territorio y un adecuado traslado a la ciudadanía de Bizkaia del valor añadido que aporta el Turismo.

El balance de datos de 2017 y la estrategia turística de cara a los próximos ejercicios han sido acogido con satisfacción por parte de la mayoría de los grupos junteros de la cámara, si bien los portavoces de Podemos Bizkaia y de EH Bildu han puesto el acento en la necesidad de adoptar medidas con un triple objetivo: garantizar la calidad del empleo generado en el sector, evitar la oferta fraudulenta de los pisos turísticos, y garantizar la no saturación de determinados espacios y la sostenibilidad medioambiental de todas las actividades asociadas al turismo.

INUNDACIONES EN LA CARRETERA ENTRE ASUA Y LA RÍA

Por otro lado, el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial ha respondido en la misma sesión a sendas preguntas orales formuladas por los grupos junteros de EH Bildu y Podemos Bizkaia. En el primer caso, el juntero Endika Montes se interesaba por las frecuentes inundaciones registradas en el kilómetro 10,9 de la carretera BI-735, que discurre junto al río Asua a la altura del centro comercial Makro. Pradales ha explicado que se encuentra en fase de anteproyecto una obra para elevar la rasante de la carretera a lo largo de un tramo de 500 metros, con un coste previsto de 725.000 euros, si bien el expediente se encuentra en este momento en fase de estudio por parte del Ayuntamiento de Erandio.

La pregunta de Podemos se refería a la falta de información respecto a una reiterada petición de consulta de documentación por parte de este grupo juntero sobre la sociedad Sestao Bai, creada para favorecer el desarrollo económico y urbano en esta localidad. Imanol Pradales ha precisado que la información requerida debe ser solicitada a la propia sociedad y no a la Diputación, aunque ha añadido que todas las cuentas de Sestao Bai están auditadas por el Tribunal de Cuentas y no han presentado salvedades.